

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, AMURRIOKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2019.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den uztailaren 19an Amurrioko Udalaren, haren erakunde autonomoaren (Amurrioko Musika Udal Fundazioa) eta sozietate publikoaren (Amurrioko Bidean SA) ekonomia eta finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2019ko ekitaldikoak.

2019ko **urteko kontuei** dagokienez, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du, nahiz Udalaren Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina 607 mila euroan gehituko luketen zenbait doiketa azaleratu diren. Halaber, 2015az geroztik ez dira erregistratu Hiri izaerako lursailen balio igoseraren zergaren likidazioei dagozkien diru-sarrerak, ez baitira horien likidazioak egin, ez eta 2020an onartu eta 2019ko ekitaldikoak ziren hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta ezabatzeko zerbitzuaren tasei dagozkienak ere. Bestalde, Kontu Orokorrak ez du lursail baten erosketa prezioaren ordainketa geroratuaren gainean dagoen konpromisoari buruzko informaziorik ematen.

HKEEk fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorrak erakusten duen **finantza egoera** aztertu du eta ondorioztatu du Udalak **egoera ekonomiko osasuntsua** duela eta behar hainbateko baliabideak dituela ohiko jarduerari eusteko eta etorkizuneko inbertsioei zorpetu beharrik izan gabe aurre egiteko. Esan beharra dago, gainera, 2020an aurreikusitako diru-sarrerak nabarmen behera egin dutela, bai diru-bilketatik datozenek, bai itunpeko zergen partaidetzatik eratorritakoek ere, COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz.

Udalaren Kontu-hartzaitzak jaulkitako txostenaren arabera, **2019ko** ekitaldian bete egin da 2019ko aurrekontuaren likidazio bateratuan aurrekontuaren egonkortasun, gastuaren arau, eta zorraren muga.

Udalak eta bere erakunde autonomoak eta sozietate publikoak zuzentasunez **bete dute** 2019ko ekitaldian beren jarduera ekonomiko eta finantzarioa arautzen duen **lege-araudia**, nahiz Udalean unean uneko zenbait akats azaleratu diren langileen eta administrazioko kontratazioaren atalean; honela, bada, langileen atalean aldi baterako 7 langile lan-kontratu mugagabeko langile ez-finko bihurtu dira 2019an eta administrazio-kontratazioaren atalean, berriz, energia elektrikoaren horniduraren kontratazioa dagokion prozedura baliatu gabe gauzatu da, kudeaketa-kontratu bati dagozkion gastuak

haren indarraldia amaitu ondoren egin dira, eta 2 kontratu mugaeguneratu ostean egikaritzen jarraitu da.